

# Hernanik Kronika

TOKIKOM 2010eko urtarrilaren 31a, igandea::: 3.178 zka. ::: www.kronika.net



## Bihartik aurrera bezeroek bost zentimo ordaindu beharko dituzte eskatzen duten poltsa bakoitzeko

Poltsak berrerabiltzeko kanpaina bigarren fasean sartu da, eta edozein materialezko poltsak kobratuko dituzte.

POLTSAK berrerabiltzeko kanpaina 2009an jarri zen martxan, eta helburua zen plastikozko poltsak kaletik kentzea. Kanpaina Udaleko ingurumen sailak eta Hernaniko 90 dendarik elkarlanean bultzatu zuten. Kanpainaren aurreneko fasean, bonoen zozketa izan da martxan, abendura arte.

Bihartik aurrera, berriz, kanpainaren bigarren fasea hasiko da. Orain, bezeroek, eskatzen duten poltsa bakoitzeko 5 zentimo ordaindu beharko dituzte. /2

### ❖ ZINEA

#### 'Planet 51' eta 'Que fue de los Morgan' gaur ikusgai

Astebururo bezala, bi pelikula jarriko dituzte gaur Biteri kultur etxean. Helduentzat, *Que fue de los Morgan* jarriko dute, arratsaldeko 19:30etan. Umeentzat berriz, *Planet 51* jarriko dute, euskeraz, arratsaldeko 17:00etan. ||

### ❖ DBH-BATERATZE PROZESUA

#### Bigarren Hezkuntzako institutu berria datorren ikasturtean

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu berria jarriko dute martxan datorren ikasturteetik aurrera, 12 urteik 18 urte bitarteko hermaniarrentzat. Bateratzea egingo dute Hernaniko hiru ikastola publikoek eta Hernani Institutuak. Erabakia Eusko Jaurlaritzak hartu du. /6-7

### ❖ KAROBI ELKARTEA

#### Barrikotean izena emateko azken aukera gaur

Karobi elkartearen barrikotea egingo dute otsailaren 12an. Bazkideek gaur izango dute izena emateko azken aukera; eta astelehenetik aurrera, gainerako herritarrek izango dute izena emateko aukera. ||



## 2010-2011 Matrikulazio kanpaina bihartik aurrera izango da zabalik

BIHARTIK otsailaren 12ra zabalik izango da 2010-2011ko Matrikulazio kanpaina. Hernanin, 700 familia inguruk erabaki beharko dute non matrikulatu bere seme-alabak. Matrikulazioak hiru ziklotan egin beharko dituzte: Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Hernanin 5 ikastetxeetan matrikulatzeko aukera izango da, lau publiko eta pribatu bat: Langile Ikastola, Urumea Ikastola, Elizatxo Ikastola, Inmakulada Ikastetxea eta Ereñotzuko Txirrita ikastola. /4-5

### GAUR KRONIKAN

**Hernaniri** buruzko bideo turistikoa /2

**Askagintza:** Astigarragako txotx denboraldiko kartel lehiaketa /2

**Alkatea** bigarren politikari baloratuena /2

**Kirolak** /3

**Eskelak** /3

**Astigarragako** kultur agenda /8

**Amegar** Erabili ezazu BERRIAK txartela

**Etxe Tresnak - Altzariak**

Ordaintzeko erraztasunak  
- Finantziaketa -  
- 12 hilabetetan interesik gabe -

Txirrita kalea, 13-15 Tel.: 943 55 11 25 - Faxa: 943 55 16 03

**VINOS RIOJA**

**BETIKO GIROA !!**

KALE NAGUSIA 61,  
20120 HERNANI. TEL: 943 55 64 92

**LARRE-GAIN**  
TOLARE SAGARDOATEGIA

*Sator sagardo  
Gernia edatera!*

943 55 58 46 - 616 28 78 67

LARRE-GAIN BASERRIA - EREÑOTZU - HERNANI

Sagardo naturala urte osoan botiletan salgai

❖ POLTSAK BERRERABILTZeko KANPAINA

# Otsailetik aurrera poltsa bakoitzeko bost zentimo kobratuko dituzte

Udaleko ingurumen sailatik azaldu dute aurreko kanpainan lortutako emaitzekin oso pozik daudela, «plastikozko poltsen erabilera 1/3 edo gehiago jaitsi delako zenbait dendatan».

UDALEKO ingurumen sailak eta Hernaniko 90 dendarik elkarlanean bultzatutako poltsak berrerabiltzeko kanpaina bigarren fasean sartu da urtea hastearrekin batera. Eta orain, otsailetik aurrera, bezeroak eskatzen dituen poltsa bakoitzeko bost zentimo ordaindu beharko ditu.

Ingurumen sailatik azaldu dutenez, edozein materialetako poltsak kobratuko dituzte: «paperezkoak, plastikozkoak, telazkoak... edozein poltsa, dena bihurtzen baita hondakin. Asmoa da jendeak bere etxetik eramatea poltsa». Eta gaineratu dute: «ez da poltsak ordaintzeko zigor bat, ingurumenari kalte egiteagatik baizik».

**Zabor tasan %30eko bonifikazioa**

Ingurumen sailak jakinarazi



**Traitz Apestegiak Aliprox dendan jaso zuen abenduko sarietako bat.**

du gainera, kanpaina honen barruan dauden merkatariek %30eko bonifikazioa izango dutela zabor tasan.

Egun 90 denda daude poltsen kanpainan sartuta eta hasieran egin bezalaxe, komertzio guztiei luzatuko

diete parte hartzeko aukera. Parte hartzen duten dendek badute horren marka.

**Aurreneko kanpaina «oso positiboa»**

Poltsak berrerabiltzeko kanpaina 2009an jarri zen martxan helburua izanda plastikozko poltsak kaletik kentzea. Eta hori bultzatzeko, bonoen zozketako kanpaina egin zen urte osoan zehar. Merkatari gehienek esan dute plastikozko poltsen erabilera jaitsi dela eta kanpainaren bultzatzaileak oso pozik daude. «Lan gogorra izan da, baina erantzuna ikusita oso positibotzat hartu dugu. Denda batzuetan esan digute 1/3 jaitsi dela poltsen erabilera eta beste batzuetan gehiago ere bai». ||

❖ GIZAKER INKESTA



**Marian Beitialarrangoitia alkatea.**

**Marian Beitialarrangoitia da Gipuzkoako bigarren politikari baloratuena**

Inkesta Gizakerrek egin du. Balorazioa egiteko orduan, kontuan hartutakoa da politikariek 2009an egindako lana eta gestioa.

MARIAN Beitialarrangoitia Hernaniko alkatea da Gipuzkoako bigarren politikari baloratuena, 5,34 punturekin. Inkesta Gizakerrek egin du, ikerketa sozialean eta merkatazterketan diharduen enpresak.

Inkesta egiteko orduan, baloratu dena da politikariek 2009an egindako lana eta gestioa.

Inkestaren arabera, Gipuzkoako politikari baloratuena Markel Olano da, 5,46 punturekin. Hirugarren postuan Joseba Egibar dago, 5,25 punturekin. ||

❖ BIDEO TURISTIKOA

## Hernaniri buruzko bideo turistikoa jarriko dute bihar Biterin

Emanaldia Udalak antolatu du eta helburua da udalerrira hobeto ezagutzea.

HERNANIREN inguruko bideo turistikoa emango dute bihar, Udalak antolatuta. Emanaldia Biteri kultur etxean izango da, arratsaldeko 19:00etan. Bideoa Euskal Herriko hainbat herriri buruzko dokumental sorta baten parte da, *Barne barnetik* izenekoa.

Grabaketa lanetaz Galdere ikusentzunezko enpresa arduratu da, eta bideo dokumental bakoit-

tzak herri bat aurkezten du. Hernaniren inguruko grabaketak urrian bukatu zituzten.

**Udalerrira hobeto ezagutzea** Bideoaren helburua da, 30 minututan udalerrira hobeto ezagutzea: historia, ondarea, tradizioa, kultura, eta abar.

Proiektzioaren ondoren, salgai jarriko dute, 8 euroan, Hernaniko hainbat liburutegietan. ||

❖ ASKAGINTZA -TXOTX DENBORALDIKO KARTEL LEHAIKETA

## Mikel Aldekoa Otalora da kartel lehiaketako irabazlea

Lehiaketa antolatu dute Astigarragako Udalak, Askagintzak eta Sagardoetxeak.

ASTIGARRAGAKO sagardo denboraldirako kartel lehiaketa antolatu zuten Astigarragako Udalak, Askagintzak eta Sagardoetxeak. Irabazlea Mikel Aldekoa Otalora izan da, Askagintza-aren esanetan, oso ondo adierazten duelako lehiaketaren helburua: «sagardo denboraldian drogen kontsumo arduratsua bultzatzea». ||



**Kartel irabazlea**

### TXANTXILLA - AZKEN ETXEBIZITZAK



- 2 eta 3 logelako etxeak, denak kanpora begira.
- Kalitate goreneko materialak, ingurune pribilegiatuan.
- Garaje itxiak.

**943 42 95 21**

[www.etxeonenak.com](http://www.etxeonenak.com)



## ◆ PELOTA - Binakako Txapelketa Nagusia

## Mendizibal eta Olaizolak 22-9 irabazi zuten, eta hirugarren jarri dira sailkapenean

Oier Mendizabalek seguru jokatu zuen, eta bi eskuekin gozatu zuen. Aimar Olaizolak erakustaldia eman zuen partidu hasieratik.

PUNTU garrantzitsua lortu zuten atzokoan Oier Mendizibal eta Aimar Olaizolak. Gonzalez eta Pascualen kontra jokatu zuten, Binakako txapelketako laugarren partidua, eta erraz irabazi zuten, 22-9.

Oier Mendizabalek seguru jokatu zuen, eta erakutsi zuen, pixkanaka-pixkanaka konfiantza hartzen ari dela. Gogoz gozatu zuen bi eskuekin eta nagusi izan zen atzean; 2 tantu egin

zituena, eta 2 galdu. Aimar Olaizolak berriz, erakustaldia eman zuen hasierahasieratik.

Atzoko partidua ostean hirugarren jarri dira sailkapenean, 2 punturekin. ||

## ◆ FUTBOLA

## Hernani eta Hondarribiaren artekoa golik gabe bukatu zen

Bigarren zatian 10 jokalarirekin jokatu arren, Hernanik aurrera egin zuen eta joko ausarta azaldu zuen.

BERDINKETAREKIN bukatu zen atzo Hernani eta Hondarribiaren arteko partidua, 0-0. Aurreneko zatia nahiko berdindua izan bazen ere, txuri berdeak nagusi izan ziren bigarren zatian.

Bigarren zatiko 14garren

minutuan epaileak Gaizka Aduriz kanporatu zuen, bi txartel hori erakutsi ostean, eta Hernanik 10 jokalarirekin jokatu zuen. Hala ere, ez ziren kokildu, eta gora egin zuten. Hortik aurera, 3-4 bat gol aukera garbi izan

bazituzten ere 0-0 amaitu zuten.

Datorren astean Pasaia-aren kontra jokatu dute, eta Jon Loranen esanetan, «partidu zaila izango da, baina taldea ondo ikusten dut». ||

## ◆ BOLA

### Hernaniko bolariak tiraldia izango dute gaur Seguran

Bola txapelketako bigarren tiraldia izango da gaur Seguran, eta hutsik egin gabe, bertan izango dira Hernaniko bolariak. Joan den asteburuan binakako txapelketako aurreneko tiraldia izan zen Añorgan, eta lehenengo hernaniarrak A. Santos eta M. Retegi izan ziren. ||

## ◆ ERRUGBIA

### Bartzelonaren kontra jokatu du gaur Hernanik

Ligari helduko dio berriz ere gaur Hernanik, Urrezko kopa-partiduen ostean. Katalunian dira hernaniarrak, eta Bartzelona taldearen kontra jokatu dute. Partidua eguerdiko 12:30etatik aurrera jokatu da, Teixonera zelaian ||

## ◆ GIMNASIA ERRTIMIKOA

### Kurtso hasierako erakustaldia gaur kiroldegian

Hernaniko Gimansia Erritmiko elkarteak kurtso hasierako erakustaldia egingo du gaur kiroldean. Erakustaldia goizeko 11:30etatik 13:00etara. Bertan, parte hartuko dute 2001garren urtean edo lehenago jaiotako haurrek; beraz, benjamin, alebin, infantil, kadete eta jubeniil mailakoak. ||

## ◆ ARETO FUTBOLA

### Asteburu kaxkarra Yone Boutique eta Aidurrentzat

Yone Boutique eta Aidurrek ezin izan zuten irabazi atzo. Yone Boutiquek Pinturas Gorka taldearen kontra jokatu zuen, eta 3-3 berdindu zuten. Julen Giraldoaren esanetan «berdiketarekin goiko taldeak urrundu egin zaizkigu, eta gora egiteko aukera paregabea galdu dugu».

Aidurrek berriz, Aratz taldearen kontra jokatu zuen eta 3-1 galdu zuen. Hortaz, igoerako ligaxka jokatu nahi badu, hurrengo bi partiduak irabazi beharko ditu. ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **KONTXI FERNANDEZ PEREZ**  
ANDREA  
"PASIEGO"  
(Carlos Rodriguez Barruezoren alarguna)  
Herenegun hil zen, 90 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta  
- Goian Bego -  
Seme-alabak: Jose Antonio eta Marisa Barrios; biloba: Patricia; ezkon arreba: Pilar Olloquiegui (Antonio Fernandezaren alarguna); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahai-deek.  
Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **BIHAR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, JUAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.  
**Hernanin, 2010eko urtarrilaren 31n**  
Helbidea: Maria Magdalena Zaharren Egoitza  
OHARRAK: Gorputz-laguntza familia artean egingo da.

**IXIAR OSORO TORRES**  
*Zauden lekuan zaudela,  
muxu goxo bat*  
**HERNANIKO ZURE LAGUNAK**  
**Hernanin, 2010eko urtarrilaren 31n**

**V. eta X. URTEURRENA**  
**Antonio Odriozola Oiarzabal**  
2005eko urtarrilaren 31n hil zen, 88 urterekin.  
eta  
**Xixili Jauregi Iraola**  
1999ko abenduaren 22an hil zen, 69 urterekin.  
NAHIZ ETA URRUN JOAN  
MUNDU HONETATIK  
EZ DUZUE ALDE EGIN  
GURE BIHOTZETIK.  
**Hernanin, 2010eko urtarrilaren 31n**



**ANEXO:**  
**MOTA GUZTIETAKO ETXETRESNAK**  
**Zure etxeak behar duena...  
guk daukagu !!**  
Kale nagusia, 59 (zinkoenea) - 20120 Hernani Tfnoa: 943 55 03 81

**Non matrikulatuko** ditut seme-alabak? Guraso askok ibiliko du kezka hori buruan garai honetan. Bihar irekiko da matrikulazio kanpaina, Hernaniko 5 ikastetxeetan, eta otsailaren 12ra bitartean izango da aukera matrikulazioa egiteko: Langile, Urumea, Elizatxo, Inmakulada eta Ereñotzuko Txirrita eskolan.

## 2010-2011 Matrikulazio kanpaina bihartik otsailaren 12ra **Hernaniko 700 familiek erabaki egin beharko dute seme-alabak non matrikulatu**

GUTXI gorabehera, Hernaniko 700 familiek egin behar dute bere seme-alaben matrikulazioa. Zein dira? Ikastetxeetan hiru ziklo izaten dira, adinen arabera: Haur Hezkuntza (2-6 urte); Lehen Hezkuntza (6-12 urte); Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte). Ba, hain zuzen ere, ziklo bakoitzean lehenengo aldiz sartu ahal izateko, matrikulatu egin behar da: alegia, 700 familia dira kasu horretan daudenak (800 bat ikasle).

Eta... non matrikulatu haurrek? Hernanin 5 ikastetxe dituzte aukeran: Langile ikastola, Urumea ikastola, Elizatxo ikastola, Inmakulada ikastetxea eta Txirrita ikastetxea (Ereñotzu). Matrikulazioa bihar irekiko da, eta otsailaren 12ra arte izango da ikastetxeetan matrikula egiteko aukera.

**Aukera zabala herrian bertan** Hernaniko 5 ikastetxeek aukera zabala eskaintzen duten, hezkuntza proiektu bat edo beste aukeratu nahi duenarentzat. Lau ikastetxe publiko daude: Langile, Urumea, Elizatxo eta Txirrita; eta ikastetxe kontzertatu bat: Inmakulada.

Inmakuladak, Urumeak, Elizatxok eta Langilek, 2 urtetik 16 urtera bitarteko eskaintza daukate, eta Ereñotzuko Txirrita ikastetxeak 2 urtetik 12 urtera bitartekoa.

Datorren ikasturtean, 3 ikastola publikoek bat egingo dute, 12-16 urte bitarteko ikasketak

2-16 urte bitartean, 2.400 ikasle daude Hernanin matrikulatuak, aspaldiko gehiena

Matrikula egin behar dutenak 800 bat dira: 2-3 urtekoak 403; 5-6 urtekoak 218; eta 11-12 urtekoak 175



**Hernaniko ikastetxeek aukera zabala eskaintzen dute, adin tarte guztietan.**

egiteko, Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak hala erabakita.

### **2.400 ikasle Hernanin matrikulatuak, aspaldiko gehiena**

Hernanin gehienek herrian matrikulatzen dituzte beren seme-alabak, baina badira inguruko herrietara eramaten dituztenak ere: %13 inguru.

#### **Herrian ikastearen abantailak**

- **Merkeagoa da.** Oinez edo bizikletaz joateko aukera dago.
- **Erosoagoa da.** Denbora gutxiago behar da denerako.
- **Seme-alaben heziketa gertuagotik jarraitu leike.**
- **Ikastetxeko dinamikan parte hartzeko aukera haundiagoa da.**
- **Seme-alabak herrian integartzeko erraztasun haundiagoa dute.**
- **Herriko jarduerara eta zerbitzuak eskura:** kiroldegia, liburutegia, Eskola Kirola egitasmoa, musika eskola....
- **Herriarentzat aberasgarria da.**

Azken urteetan, igo egin da matrikulazioa Hernaniko ikastetxeetan, 2.008 ikasle ziren orain dela 9 urte, eta aurtent 2.400 ikasle dira, 2-16 adin tartean ikasten ari direnak. Hor, kontuan hartu behar da jaiotze tasa ere asko igo dela urte horietan. Baina azken bi urteetako datuak kontuan hartuta, 2007-08 ikasturtean

2.258 ikasle ari ziren Hernanin ikasten, eta adin tarte horretan zeudenak guztira, 2.795 ziren. Aurtent berriz, 2.400 ikasle ari dira Hernanin ikasten, eta guztira 2.713 dira.

### **Hernanin ikasteak dituen abantailak azpimarratu ditu Hernaniko Udalak**

Hernaniko Udalak kanpaina jarri du martxan, Hernanin matrikulatzeak dituen abantailak azpimarratzeko. *Herrian Bizi, Herrian Ikasi* izena du kanpainak, eta asmoa da, hernaniarrak animatzea, seme-alabak herrian matrikulatzera.

Hiru ideia azpimarratu dituzte, batez ere, kanpainan. Hernanik eskaintzen duena: aukera zabala eta anitza dela;

kalitatezko eskaintza dela; eta abantaila asko dituela.

Merkeagoa, erosoagoa, bertakoagoa... eta herriarentzako ere aberasgarria da beraz, haurrek herrian matrikulatzea. **II**

### **2001etik honako matrikulazioa (2-16 urte)**

- 2001-02: 2.008 ikasle
- 2002-03: 2.019 ikasle
- 2003-04: 2.018 ikasle
- 2004-05: 2.044 ikasle
- 2005-06: 2.123 ikasle
- 2006-07: 2.190 ikasle
- 2007-08: 2.258 ikasle
- 2008-09: 2.306 ikasle
- 2009-10: 2.400 ikasle

2010/2011 ikasturtea HH · LH · DBH

## Hernaniko ikastetxeetan aukera zabala duzu



herri**an**bizi  
herri**an**ikasi



Hernaniko Udala

Zer eskaintzen du  
Hernanik?

### Aukera zabala eta anitza

- 0-2 urte Haur eskola publikoa eta pribatua
- Derrigorrezko Hezkuntza Ikastetxe publikoak eta pribatu bat
- Batxilergoak eta Heziketa Zikloak Ikastetxe publikoak eta pribatua
- Helduen Heziketarako ikastetxe publikoa

### Kalitatezko eskaintza

- Euskalduna eta eleanitza.
- Parte hartzailea: guraso, irakasle eta ikasleen arteko elkarlana bultzatzen duena.
- Herrian txertatua: herriko kultur jardueretan parte hartzen duena (Olentzero, Sanjoanak, Inauteriak...).
- Anitza eta integratzailea: elkarrekiko errespetuan oinarritua.
- Herriko eskolen arteko elkarlana bultzatzen duena.
- Irakasleen formazio etengabeari garrantzia ematen diona.
- Ingurumena zaintzeaz arduratzen dena.
- Kalitatezko zerbitzuak eskaintzen dituena: jangela, eskolaz kanpoko jarduerak...

### Abantaila asko

- Merkeagoa da: oinez edo bizikletaz joateko aukera duzu.
- Erosoagoa da: denbora gutxiago behar duzu joan-etorrian.
- Seme-alaben heziketa hurbil-hurbiletik segitu dezakezu.
- Ikastetxearen egunerokotasunean parte zuzena har dezakezu.
- Seme-alabek herrian bertan lagunarte zabala izateko aukera dute.
- Herriko jarduerak eta zerbitzuak eskura dituzue: eskola-kirola, kultur jarduerak, kiroldegia, kultur etxea, musika-eskola...
- Herriarentzako aberasgarria da eta eskaintza zabaltzeko eta hobetzeko aukera ematen dio.

- Haur Hezkuntza (HH)
  - Lehen Hezkuntza (LH)
  - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)
- Aurrematrikulatzeko epea:  
otsailaren 1etik 12ra (biak barne)

Hurbildu zaituz Hernaniko ikastetxeetara.  
Ezagutu eta behar duzun informazioa eskatu.



Inmaculada ikastetxea

☎ 943 550 233 · Sandiusterrri, 4 · [www.lainmaculadahernani.com](http://www.lainmaculadahernani.com)

Elizatxo ikastola

☎ 943 557 224 · Elizatxo auzoa, 12 · [www.elizatxoikastola.com](http://www.elizatxoikastola.com)

Langile ikastola

☎ 943 555 423 · Karobieta auzoa, 37 · [www.langile.com](http://www.langile.com)

Txirrita ikastetxea

☎ 943 554 256 · Ereñotzu bailara, 1-A



Urumea ikastola

☎ 943 550 472 · Larramendi, 18 · [urumeaikastolabhi.com](http://urumeaikastolabhi.com)

## Hernaniko ikastetxeak

### 0-2 urte Haur-eskolak

- **Hernaniko haur-eskola** ☎ 943 552 991  
Sagastialdeberri, 2 [hernani.hernani@haurreskolak.net](mailto:hernani.hernani@haurreskolak.net)
- **Inmaculada ikastetxea** ☎ 943 550 233  
Sandiusterrri kalea, 4 [hh@lainmaculadahernani.com](mailto:hh@lainmaculadahernani.com)

### Derrigorrezko Hezkuntza

- **Elizatxo ikastola**  
Elizatxo auzoa, 12 ☎ 943 557 224  
[elizatxo@elizatxoikastola.com](mailto:elizatxo@elizatxoikastola.com)  
Florida auzoa, 28 ☎ 943 552 633  
[012954aa@hezkuntza.net](mailto:012954aa@hezkuntza.net)
- **Inmaculada ikastetxea** ☎ 943 550 233  
Sandiusterrri kalea, 4 [lh@lainmaculadahernani.com](mailto:lh@lainmaculadahernani.com)  
[dbh@lainmaculadahernani.com](mailto:dbh@lainmaculadahernani.com)
- **Langile ikastola** ☎ 943 555 423  
Karobieta auzoa, 37 [laubidieta@langile.com](mailto:laubidieta@langile.com)  
Santa Barbara bailara, 27 ☎ 943 333 084  
[santabarbara@langile.com](mailto:santabarbara@langile.com)
- **Txirrita ikastetxea** ☎ 943 554 256  
Ereñotzu bailara, 1-A [012086aa@hezkuntza.net](mailto:012086aa@hezkuntza.net)
- **Urumea ikastola** ☎ 943 550 472  
Larramendi kalea, 18 [012653aa@hezkuntza.net](mailto:012653aa@hezkuntza.net)  
Elkano kalea, 7 ☎ 943 330 080  
[012953aa@hezkuntza.net](mailto:012953aa@hezkuntza.net)

### Batxilergoa eta Heziketa Zikloak

- **Hernani institutua** [institutua@hernanibhi.com](mailto:institutua@hernanibhi.com)  
Santa Barbara auzoa, z/g ☎ 943 551 188  
Karmelo Labaka, 7 ☎ 943 551 958
- **Inmaculada ikastetxea** ☎ 943 550 233  
Sandiusterrri kalea, 4 [ciclosformativos@lainmaculadahernani.com](mailto:ciclosformativos@lainmaculadahernani.com)
- **Lanbide Hastapenerako ikastetxea** ☎ 943 551 808  
Latsunbe auzoa, 44 [transpacar1@hernani.net](mailto:transpacar1@hernani.net)

### Helduen Hezkuntza

- **HHI-CEPA Hernani** ☎ 943 335 318  
Antziola auzoa, 62 [012076aa@hezkuntza.net](mailto:012076aa@hezkuntza.net)



Agustin Iturriaga zentroan bilduko dira irailetik aurrera DBHko 1go mailako ikasleak, eta Batxilergoa egiten ari diren ikasleak.

## Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bateratzeko prozesua

# Ikastetxe publiko bakarra, 12 urtetik gorako ikasleentzat

Bigarren Hezkuntzako Institutu berria datorren ikasturtean jarriko da martxan, 12 urtetik 18 urte bitarteko hernaniarrentzat. Beraz, otsailean matrikula egiten duten 12 urtetik gorako ikasle gehienek institutu horretan emango dute izena. Hernaniko hiru ikastola publikoak, eta Hernani Institutuak egingo dute bateratzea, eta Inmakulada ez da sartuko prozesuan, pribatua delako. Eusko Jaurlaritzak hartu du erabakia, iritzi kontrajarriak sortu ditu Hernaniko ikastetxeetan, erabakiak eragingo dietenetan.

EUSKO Jaurlaritzak hala erabakita, datorren ikasturteko aurrera, Hernaniko ikasle gehienek batera egingo dituzte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak. Lehen 16 urterekin nahastu eta elkarrekin ikasten zutenak, orain 12 urterekin elkartuko dira, elkarrekin ikastera.

### Otsailean izena eman, irailan hasi

Asmoa da, datorren ikasturtean bat eginda izatea herriko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehendabiziko mailak, 2010eko irailetik aurrera. Erabateko fusioa, hurrengo urteetan egingo da, eta Batxilergoa eta Heziketa Zikloak ere proiektu beraren barruan sartuko dituzte. Datorren ikasturterako izen ematea otsailean egingo da, beraz, matrikulazioa bateratua izango da.

### Ikastetxe bakoitzak bere DBHa orain arte

Aspalditik zetorren kontua zen bateratzearena. Tartean bilera mordoska eta Gasteizko gobernu aldaketa ere izan dira. 2009eko irailean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak berriz ekin zion Eskola Mapa berraztertzeari.

Euskal Autonomi Erkidegoko Eskola Mapan aldaketak egiten ari da Hezkuntza Saila, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoak bateratzeko prozesua

### HEZKUNTZA DELEGARITZA:

«Hernani herrian Bigarren Hezkuntzako eskaintza hobetzeko egingo da bateratzea. Eskaintza osoago eta egituratuago bat izateko»

«Hezkuntza Proiektua garatzen joan behar da. Horretarako lan talde bat jarriko da martxan aurreko urteetan Batzorde Pedagogikoak landutakoa oinarri hartuta»

jarri du martxan. Horren harira, bere ardurapean dauden zentro guztiakin berrantolaketa egin nahi du, baita Hernanikoekin ere.

2008/09 ikasturteko datuen arabera, Inmakulada ikastetxeak 94 ikasle izan zituen DBHn, Hernaniko DBHko ikasleen %16; Urumea Ikastolak 135 ikasle, %23; Langile Ikastolak 218 ikasle, %37; eta Elizatxo Ikastolak 133 ikasle, %23. Guztira 581 ikasle zeuden joan den urtean DBH egiten herriko ikastetxeetan.

«Eskaintza hobetzeko egina» Gipuzkoako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzatik Kronikari jakinarazi diotenez, Hernaniko eskaintza hobetzeko hartu dute erabakia, batez ere: «Hernani herrian Bigarren Hezkuntzako eskaintza hobetzeko. Eskaintza osoago bat eta egituratuago bat egin ahal izateko».

### Bi urte bilerak egiten

Prozesuak beraz, gora behera haundiak izan ditu, baita geldialdiak ere. Hala ere, aspalditik zetorren kontua da; zehatz esanda, 2004-2005 ikasturteetik. Ikastetxe guztietako ordezkariak, hezkuntza administrazio eta udaletxeko ordezkariak bildu ziren bileretan, eta bi batzorde osatu ziren: batetik, Batzorde Pedagogikoa, Hezkuntza Proiektuaren inguruan

lanean aritu zena. Eta bestetik, Batzorde Teknikoa, bitartekoekin lotutako aspektuak landu zituen.

Hausnarketa prozesu luzea izan zen eta makina bat bileraren ondoren, ikastetxe batzuk bateratzearen alde azaldu ziren, eta beste bat ez, zehazki Langile ikastola, «ez behintzat baldintza haietan». Azkenean, Eusko Jaurlaritzak bateratze prozesuarekin aurrera jarraitzea erabaki du.

### «Hezkuntza proiektua garatzen joan behar da»

Institutu berriak zein Hezkuntza proiektu izango duen galderari honakoa erantzun dio, Donostiako Hezkuntza Deleagaritzak: «Hezkuntza Proiektua garatzen joan behar da. Horretarako lan talde bat jarriko da martxan hori eraikitze-ko. Lana hasia dago, aurreko urteetan Batzorde Pedagogikoak landutakoa oinarritzat hartuta jarraitu behar da proiektua osatzen. Lan talde horretan irakasle eta gurasoek parte hartuko dute, eta behar izanez gero, aditu batzuk ere bai. Helburua ikastetxe bakoitzak dituen gauza onenak baliatuz, denontzat proiektu on bat egitea da».

«Hernanin behin betiko destinoa duten irakasle guztiak ariko dira»

Hezkuntza sailaren esanetan, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bat izango da. Bigarren Hezkuntza osoa eskainiko duena, hau da, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako ikasketak, «horrelakoak dira Bigarren Hezkuntzako ikastetxe gehienak».

«Irakasleria izango da, oraingo lau ikastetxeetan dagoena. Berez, egun Hernanin behin betiko destinoa duten irakasle guztiak arituko dira, orain bezala».

**Agustin Iturriaga, Karmelo Labaka, Santa Barbara, eta eraikin berri bat**

Azpiegitura aldetik, oraingo hiru eraikin eta beste berri bat izango ditu proiektuak. Batetik, Agustin Iturriaga eta Karmelo Labaka eraikinak; bestetik, Santa Barbara eraikina; eta azkenik, eraikin berri bat, gimnasio, jangela, eta zerbitzu osagarriko espazio batzuk izango dituena (teknologia gelak, plastika gelak, eta abar).

«Ikastetxeen sarea antolatzea Hezkuntza Sailaren erantzukizuna da».

**Hiru urtetan egingo da fusioa**

Hiru urte beharko dira prozesu osoa egiteko. Honakoa jakinarazi du Hezkuntza sailak: «Dagoeneko zuzendaritza taldeak elkarrekin lanean ari dira. Maiatzerako gurasoekin beste bilerak egingo dira gauzak gehiago zehazteko: hurrengo ikasturterako DBHko 1go mailako antolaketa berri emateko».

«Ikasleei dagokienez, onarpen prozesu bateratua egingo da, hau da, otsailean izena eman behar dute: datorren ikasturtean DBHko 1go mailan arituko diren ikasleek».

**Ikastetxe batek ez badu fusio horretan sartu nahi, aukera dauka bere kabuz jarraitzeko?**

Hezkuntza Delegaritzak argi eta garbi erantzun dio Hernaniko Kronikari, fusioan sartu behar dutela Hernaniko ikastetxe publiko guztiek:

«Ikastetxeen sarea antolatzea Hezkuntza Sailaren erantzukizuna da. Berari dagokio ezartzea eta finkatzea zenbat eta zer mota-tako ikastetxe publikoak martxan jarri behar diren, ikastetxe bakoitzak zenbat eskola plaza izan behar dituen... Beraz, hemendik aurrera Hernaniko Bigarren Hezkuntzako eskaintza publiko bakarra izango da Hernanin». ■

**GIPUZKOAKO HEZKUNTZA LURRALDE DEPARTAMENDUA:**

**«Bat egitea progresiboki egingo da»**

HEZKUNTZA Departamendua-  
ren esanetan, bat egitea progresiboki egingo da:

· 2010-2011 ikasturtean DBHko 1go mailako ikasleak elkartuko dira eta Agustin Iturriagan egongo dira. 2-3-4 mailakoak oraingo eraikinetan jarraituko dute.

· 2011-2012 ikasturtean DBHko 1go mailako ikasleak elkartuko dira. 2garren mailakoak jada elkartuta daude, Agustin Iturriaga eraikinean, eta DBHko 3-4 mailakoak oraingo eraikinetan jarraituko dute.

· 2012-2013 ikasturtean maila guztietako ikasleak elkartuko dira. 1-2-3 mailakoak Santa Barbara eraikinean ariko dira, eta DBHko 4garren mailakoak eta Batxilergokoak Agustin Iturriaga eraikinean.

· Batxilergoko ikasleak beti Agustin Iturriaga eraikinean ariko dira, eta Lanbide Heziketakoak Karmelo Labakan.

## Ze iritzi dute Hernaniko ikastetxeek fusioari buruz?

### LANGILE IKASTOLA

**«Batetik, ez dute emandako hitza errespetatu, eta bestetik Langile Ikastola suntsitzen du inposizio horrek»**

«2005ean Hezkuntza Delegazioak herriko ikastetxe publiko guztioi 12-16 ikastetxe bateratu bat sortzeko proposamena egin zigun, eta bi urtez iraun zuen prozesu horretan, irakasle eta gurasoz osatutako lan batzordean gogor egin zen lan, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza proiektua aztertuz, gutxienezko adostasun batzuetara iristeko helburuarekin. Hezkuntza Delegazioak hitz eman zuen prozesua hasi aurretik lan horren emaitza errespetatuko zuela.

Baina herriko ikastetxe publikoak oso hezkuntza proiektu desberdinak ditugu, era oso desberdinean ikusten dugu irakaskuntza, eta bi urteko lan guzti horren ondorioa izan zen: ez zegoela adostasun nahikorik aurrera egiteko.

Bi urtez fusioaren berririk eduki gabe egon ondoren, 2009-an erabateko inposizioa eta erasokorra den agindua eman du Hezkuntza Delegazioak, hala nola 2010/2011 ikasturteetik aurrera 12-18 urte bitarteko fusioa gauzatuko dela, nahiz eta inolako proiekturik gabekoa eskola jarri nahi duten martxan, eta elkarrekin egon nahi ez dugun komunitateak elkarrekin egotera behartzen gaituztela.

Batetik, ez dute emandako hitza errespetatu, bestetik Langile Ikastola suntsitzen du inposizio horrek, 2-16 ikastetxe sendo eta indartsu bat delako, inolako ihesik gabe, lan koordinatu bat duen hezkuntza proiektua delako, pedagogikoki eta konpromiso aldetik sinesgarritasun handia duena. Oso parte har-

tzailea, eta nabarmenki aukeratu dena Hernaniko guraso gehienek aldetik, eta azkenik, Administrazioak bere interes propioak gailendu nahi ditu gutxienezko zehaztasunik ez duen proiektu batean hezkuntza bera kinka larrian jarriaz.

Arrazoi guzti horiek direla medio, eta proiektu hori aurrera ateratzeko abiapuntu hau oso txarra dela kontsideratzen delako, Langile Ikastolak oraindik ere ezetz esaten dio fusioari. Gure seme-alabei heziketa eredurik onena eskeini nahi diegu, eta horrelako proiektu bat martxan jartzeak, eskatzen du, gutxienez, denbora eta lan sakonago bat adostasun batzuetara iristeko, eta denok ilusiotik has-teko, eta ez inposiziotik. Inposizioaren bideak ez du amaiera onik izaten eta». ■

### ELIZATXO IKASTOLA

**«Fusioak Hernaniko Bigarren Hezkuntzako eskola mapa razionalizatzen du, herriari ikastetxe publiko sendo bat eskainiz»**

«LEHENIK aipatu behar dena zera da, Hezkuntza Delegazioak, Lege Biltzarrean onartutako Eskola Mapa berria dela eta, Hernanirako proposatzen duena Bigarren Hezkuntzako Institutu berri bat dela, gaur egun dauden Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko guztien fusiotik sortuko dena. Hau da, DBHko 3 ikastetxeak (Elizatzxo BHI, Langile BHI eta Urumea BHI) eta Batxilergo eta Heziketa Zikloko Hernaniko Institutua.

Orain dela lau edo bost urte hasi zen ikastetxeen elkartze prozesu honetan, Elizatzxo BHI ikastetxearen iritzia (Klaustroa,

Ikastetxe Organo Gorena eta Gurasoen Asanblada) beti fusioaren aldekoa izan da. Hausnartzen hasita, honakoak dira gure artean indar gehiagorekin agertzen diren arrazoiak:

· Planteatzen den fusioak Hernaniko Bigarren Hezkuntzako eskola mapa razionalizatzen du herriari ikastetxe publiko sendo bat eskainiz. Bertako ikasleek DBH eta batxilergoa ikastetxez aldatu gabe egiteko aukera edukiko dute.

· Ikastetxe berriaren tamaina handiegia izan gabe (askoz handiagoak diren ikastetxe publikoak badaude Donostian bertan) ibilbide edukatibo gehienak eskaintzeko aukera bermatuko du: batxilergo modalitate desberdinak, dibertsifikazio curricularra behar duten DBHko ikasle guztientzako eta abar.

· Baliabide aldetik ere, ikastetxe berriak (bere kokapena Hernani Institutua eta Santa Barbarako egoitzetan izango du) oraingoak baino instalazio hobekien eskainiko dizkie herriko ikasleei: gimnasioa ikastetxean bertan, jangelak (gaur egun herriko DBHko bi ikastetxe jangelarik gabe daude), frontoi bat eta abar.

· Ikastetxe berriaren hezkuntza proiektuari dagokionez, bistakoa da gaur egun dauden 4 ikastetxeetatik sortu behar den proiektua dela, eta denak sare publikoko ikastetxeak izanik, kalitatezko hezkuntza ari gara jadanik eskaintzen. Beraz, gugandik sortzen den horrek, guztien aportazioa jasota, orain arte dagoena bezain ona edo hobea izan behar du nahi eta nahiez; ahaztu gabe, proiektu berriak okasio ezin hobea eskaintzen digula gure hezkuntza proiektua bultzada berri batez hobetzeko». ■

**URUMEA IKASTOLAK  
ETA HERNANI  
INSTITUTUAK  
DATORREN ASTEAN  
EMANGO DUTE IRITZIA**

**pelisimo**  
FOTODEPILAZIO AURRERATUA

94 333 18 10

Kardaberaz kalea, 35  
www.pelisimo.com

Ebatzi ezazu zure gorputzeko edozein ataleko ilea fotodepilazio berritzaile sistema honekin.

Sistema berria, erraza, minik gabekoa eta eraginkorra.

Bizkarra iztondoak hanka 1/2 besoa axilak

**tarifa bakarra: 30€**

**UNISEX**

- Aurpegi fotogaztetzea  
Eta gainera: - Aknearen tratamendua  
- Aurpegiko orbanen ezabaketa

**ARALAR TABERNA**

GIRO EDERRA ETOR ZAITEZ

**ZAPA KALEA 8**  
943 33 15 06

asteartetik igande eguerdira irekita

**OTSUA-ENEA**

Osifaga auzoa  
Tel. 943 55 68 94

**TELEFONAK** ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 - 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103  
● **FARMAZIAK** ● **Eguzte**: **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 ● **Gauze**: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

**EGURALDIA** ● **GAUR** ● **BIHAR**

Giroa hoztu egingo da eta elur kotak behera egingo du. Lainoak izango dira nagusi, eta tarteka zaparradak botako ditu.

Euria egingo duen arren, zaparradak ez dira hain ugariak izango. Temperaturak gora egingo du, 2-3°C inguru.

## ASTIGARRAGAKO KULTUR AGENDA



Mikel Urdangarin kontzertua izango da otsailaren 27an.

# Santa Ageda, Inauteriak eta Kaldereroak nagusi otsailean

FESTA giroa nagusi izango da otsailean Astigarragan. Kultur Agendari begirada bat botaz gero, azpimarratzeko ekitaldiak dira Santa Agedako kantu eskea, Inauteriak, eta ume eta helduentzako antolatutuzten ikuskizunak.

### Hilabetea asteko, Santa eskea

Hilabetea Santa Ageda bezperako kantu eskearekin hasiko dute Astigarragan. As-teazkenean izango da, arratsaldeko 19:00etan. Aiztondo abesbatza eta Astigarragako Txirriskla txistulariak ibiliko dira herriko kaleetan barrena, Foru Plazatik abiatuta.

### Ipuin ordua eta zinema

Egun berean, umeentzako

ipuin ordua antolatu dute kultur etxeko liburutegian. Bi saio izango dira: 3-5 urte bitartekoentzat, 17:45etan, eta 6-9 urte bitartekoentzat 18:15etan. Ipuin kontalaria Lur korta izango da.

Horrez gain, otsailaren 6an eta 20an haurrentzako zinema izango da, 17:00etan, euro batean. Otsailaren 6an *Cher ami* jarriko dute eta otsailaren 20an *Pluk eta bere garabia*.

### Haur eta helduentzako ikuskizunak

Hala ere, zinea eta ipuin ordua ez dira izango haurrentzako ekitaldi bakarrak. Otsailaren 7an, 17:00etatik 18:00etara *Arrasto Bluak* ikuskizuna izango da, kultur etxean.

Helduentzako berriz, poe-

sia eta musika ikuskizuna antolatu dute, *Internet Kafe* izenekoak. Otsailaren 27an izango da, 20:00etan, kultur etxean. Mikel Urdangarin eta Kirmen Uribe ariko dira zuzenean.

### Lantzeko inauteriak eta Kaldereroak

Inauteriak ospatzeko aukera ere izango da. Astigar dantza taldeak egun osorako ekin-tzak antolatu ditu otsailaren 14an. Besteak beste, dantzan ikasteko aukera eta txanoak egiteko tailerrak izango dira.

Kaldereroei dagokienez, konpartsa Ergobiatik aterako da, otsailaren 20an, 17:30etan. Afaria izango da ostean Zipotza taberna, eta txartelak bertan daude salgai. II

### ASTE SANTUA - TUNEZ

MARTXOAREN 29tik APIRILAREN 5era  
HOTEL 4\*\*\*\*, 7 GAU - PC

475'00€

Aukera gehiago:

<http://hernanibidaia.bookingfax.com>

-bideoak, katalogoak eta informazio zabalak

### FORMULA 1 - MONTMELO

APIRILAREN 7tik 9ra  
3 EGUNETARAKO SARRERAK PELOUSE  
HOTEL3\*\*\*, 2 GAU

195'00€

### APIRILA-MAIATZA-EKAINA / 7 GAU

TUNEZ  
HOTEL 4\*\*\*\*, MP

290'00€

PUERTO LA CRUZ  
HOTEL 3\*\*\*, MP

310'00€

MALLORCA  
HOTEL 3\*\*\*, MP

320'00€

LANZAROTE  
HOTEL 4\*\*\*\*, MP


380'00€

GRAN CANARIA  
HOTEL 3\*\*\*, MP

380'00€

PUNTA CANA  
HOTEL 4\*\*\*\*, MP

640'00€



**HERNANI**

BIDAIK

Urbieta, 6

943 33 00 49

hernanib@telefonos.es

[www.hernanibidaia.com](http://www.hernanibidaia.com)

### Atez ateko zalantzak argitzen

Zenbat kostako litzateke Zubietako errauste-planta?

Aurreikuspen ofizialen arabera, 400 milioi eurotik gora kostako litzateke. Diru hori amortizatzekeo ikaragarri urte asko beharko litzateke.

Bidali zure galdera helbide honetara: [info@hernaniatezate.net](mailto:info@hernaniatezate.net)  
Galde-erantzun guztiak webgunean: [www.hernaniatezate.net](http://www.hernaniatezate.net)



### IRAGARKI MERKEAK

Pisu baten bila nabil alokaituan (abala), 2 logela. Deitu: 608 671 844.

Pisua salgai Karabelen. 60m2, 2 logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua. Deitu: 627 403 119.

Pianoa salgai. Yamaha U1F modeloa, bigarren eskukoak. Ongi zaindua. 2.500 euro. Deitu: 629 763 041.

ETXEO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Vanesa eta Miguelo Harategia

Aukera ezinhobea !!  
Asteburu honetan  
Egin zure enkargua !!  
Gaur, larunbata  
arratsalde itxita !!

AURREZ EGINDAKO JANARIAN (PLATOS PRECOCINADOS)  
AUKERA ZABALA!!...ETA ENKARGUZ:

KARAKOLAK 9,50€ OILASKO ERREA 6,00€

Larramendi, 17 - HERNANI Enkarguetarako: 943 55 03 32

[www.salesianosurnieta.com](http://www.salesianosurnieta.com)

Tfnoa. 943 55 17 89

**SALESIANOS Urnieta**  
**SALESIARRAK**

**DBH**

Unibertsitate edo lanean hasi arte  
giro lasai eta arduratsuan ikasi nahi baduzu...

**zatoz,**

Baxilergoa

Teknologikoa / Natur-Osasan Zientziak / Humanistikoa

Langabe Heziketa

Elektrizitatea/ Elektronika / Mantenimendua / Grafikagintza

**Puertas abiertas:**

6 de Febrero - 11:00h

**Ateak zabalik:**

Otsailak, 6 - 11:00

Aurreinskripzioak: otsailak 1-12

